

## ZER DIRA?

**IRAKURLE TXIKIEN KLUBAK** [Galtzagorri elkarteak](#) sortutako irakurketa sustatzeko ekimen batzuk dira; bertan gurasoek, haien seme-alabekin batera, partekatuko dituzte irakurketa une batzuk. Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak proiektu hau Ultzamaldera ekarri nahi izan du. 2025-2026 ikasturtean 5 saio eskainiko ditu.

### Helburuak:

- Irakurketaz eta literaturaz gozatzea eta horretarako ohiturak sustatzea. Hurrek, giro lasai batean, liburu eta irakurketaz gozatzea.
- Kalitatezko euskal bibliografia ezagutzea eta familien arteko euskarazko harremanak ehuntzea, saretzea.
- Guraso/senide/familiako lagun euskaldunak irakurketan parte aktiboa hartzea eta hauek prestatzea, hurrekin irakurketa modu autonomoan partekatzeko gai izan daitezen

## ZER EGITEN DA SAIO BATEAN?

- Irakurketa ozenak. Ahozko kontaktak. Irakurritako liburuei buruzko komentario eta gomendioak.
- Liburuen aurkezpenak, haien bibliografia zabaltzeko. Adin bakoitzeko liburu interesgarrien aurkezpenak irakurketa sustatzeko teknikak erabiliz egingo dira, eskema jakin baten arabera, saio bakoitzean, gurasoek beren hurrekin batera, egin behar dituzten aurkezpenetako ildoak zirriborratuz.
- Literaturaren inguruko hainbat ekimen lasaiak, adib. tradiziozko haur poesia erabiliko da. Jolasak eta kantuak, antzezpen txikiak, errezitatuzko poemak, aho-korapiloak nahiz igarkizunak... Eguneko poesia ere erabiliko da jolasean aritzeko helburu berdinarekin.
- Saio bakoitzean, hurrengo eguneko aurkezpenak zeintzuk egingo dituzten erabakiko da; modu honetan, hurrek eta guraso/senide/familia lagunek ere beren liburu maiteak aurkez ditzakete; etxean dituztenak, liburu dendan ikusi eta irakurritakoak...

## NOIZ DIRA SAIOAK?

**Datak:** Azaroak 27 / Abenduak 10 / Urtarrilak 29 / Otsailak 26 / Martxoak 26 / Apirilak 30 / Maiatzak 28. Arratsaldeko **17:00etatik 18:00etara**.

## PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:

**Doako** saio horietan, **hamabost hurrek** har dezakete parte, horien guraso edo senide edo familiaren lagun euskaldun batekin batera, hurrek ezin baitute bakarrik joan saioetara (guztira 15 familia gehienez). Gutxieneko taldea 5/6 familiakoa izango da.

**Gaztetxo**en adin tartea: **6-8 urte bitartekoak** (biak barne), hau da, **urte hauen bitartean jaiotakoak: 2017 - 2019**.

## ARGIBIDEAK ETA IZEN-EMATEA:

- **EPEA:** 2025eko azaroaren 3tik 7ra.
- **TELEFONOZ EUSKARA ZERBITZURA DEITU** (948 30 51 34) – Arreta goizeko ordutegian bakarrik, 15:00ak baino lehen.